

Egilea: Aizpea Urbegain Amenabar

HISTORIAKO PROTAGONISTAK

Zer da protagonista izatea? Historiak badu protagonistarik? Hasteko, protagonista, ekintza bultzatzen duen pertsonaia da. Hau da, ekintza garrantzitsuak eginarazten dituen pertsona. Historiak hainbat protagonista ditu, esate baterako, Kristobal Kolon, Juan Sebastian Elkano, Adolf Hitler, etab. Aipatutako guztiak gizonak dira, ezagunenak gizonezkoak direlako, baina, ba al daude emakume protagonistarik Historian? Zergatik ez dugu behar beste entzuten eta ikasten haietaz? Noski daudela, eta ez dira gutxi, adibidez, Marie Curie, Gaztelako erregina, Isabel II (Ingalaterrako erregina), Frida Kahlo... Beste hainbat egon dira, baina ez dira ezagutzera eman emakumeak izateagatik.

Historiak erakutsi izan ohi digu emakumeek ez dutela indar gogorra edo zaila egiteko ahalmena izan, adibidez, gerrara joateko. Emakumeak, normalean, bortxaketen edo sexu indarkerien biktimak izan dira. Kasu askotan, gizonak gerrara joandakoan edo hildakoan emakumeak bakarrik geratzen ziren beraien seme-alaben eta etxearen ardurarekin. Nekazari lanetan aritzen ziren, erizainak ziren, sukaldariak... Baina, ematen du hori ez dela nahikoa, barneratuta daukagulako emakumeak horretarako bakarrik balio dutela eta beraien "rola" jarraitu behar dutela.

Dakigunez, gu sistema patriarkatu batean bizi gara, baina, zer da patriarkatua? Patriarkatua gizarte-sistema bat da, gizonak lehen mailako boterea eta pribilegioak dituzte, politikoki ere lider nagusiak dira... Emakumeen askatasuna murrizten dute, adibidez, langabezian utziz, ezer balio ez bazuten bezala tratatuz, botere maila altu batera iristeko zailtasuna...

Ondorioztatu dezakegu, historian hainbat protagonista daudela eta egongo direla, gizonezkoak bai emakumezkoak. Baina, gizonak garrantzi gehiago ematen zaie, emakumeak gutxiesten diren bitartean. Gainera, iraganean pasatutako gertaerak ondorioak utzi ditu, patriarkatua eta emakume askoren sufrimendua/zapalketa eraginez.